



9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK

9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



HELBURUA:

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea

9. GJH erronkatzat hartzen ditu eraldaketa digitala eta eredu ekonomiko zirkular eta deskarbonizatu baterantz aurrera egitea.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Zarauzko industria-establezimenduen ezaugarriak
- Berrikuntza eta zaintza teknologikoa
- Turismoarekin lotutako berrikuntza
- Industria-establezimenduen ingurumen kudeaketa
- Ekonomia zirkularra Zarautzen

Garapen Jasangarrirako **9. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJHekin ditu lankidetzaren eremu gehien




ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Zarauzko **industria-establezimenduen ezaugarriak**

Lehenik eta behin Zarauzko Industria-establezimenduen ezaugarri nagusien azterketa egiten da, bertan ezartzen diren ezaugarri nagusiak identifikatuz:

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Industria-establimenduen kopuruaren bilakaera
(adierazitako urteko urtarilaren 1ean)




Zarauzko industria-sektorea 128 enpresa inguruk osatzen dute. Industria-establimenduen bilakaera aztertuz, azken 10 urtean %32 jaitsi dela ikus daitekeelarik.

Iturria: Eustat


Industria sektoreari dagokionez, 128 establimendu daude industria, energia eta saneamenduari dagozkienak; hau da, udalerrian sektore honek % 7 suposatzen du enpresa kopurua kontutan hartuta. Aipatzekoa da Zarautzen establimenduen gehiengoa (%37) merkataritza, garraioa eta ostalaritza sektorekoak direlarik.

Bestalde, 128 industria establimenduek 1.215 pertsona enplegatzen dituzte, hau da, udalerrian sortzen diren enpleguen %18a.

Establimendu-kopuruaren banaketa
jardura-sektorearen arabera




Langile kopuruaren banaketa
jardura-sektorearen arabera



- | | |
|---|--|
| ■ Merkataritza, garraioa eta ostalaritza | ■ Jardura profesional eta laguntzaileak |
| ■ Herri Administrazioa, hezkuntza eta osasuna | ■ Eraikuntza |
| ■ Arteetako eta bestelako jarduerak | ■ Industria, energia eta saneamendua |
| ■ Finantza jarduerak eta aseguruak | ■ Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza |
| ■ Jarduerak higiezinekin | ■ Informazioa eta komunikazioak |

Iturria: Eustat

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



Ikus daitekeenez, industria-sektorean langabezian geratu ziren pertsonen kopuru maximoak 2012 eta 2015 urteen artean erregistratu ziren. Aldi berean, sektorean urtero erregistratutako kontratuek gora egin dute 2015etik aurrera.

Iturria: SEPE. Langabeziaren eta kontratuen erregistroa.


Udalerrian kokatzen diren enpresa gehienak metalezko produktuen fabrikazioa eta altzarigintza arlokoak dira. Establezimendu kopuruaren arabera adierazgarriak dira, halaber, arte grafikoaren eta elikagaien eta edarien ekoizpen sektoreko establezimenduak ere.

Establezimendu kopurua	Industria-establezimendu guztiekiko (industria, energia, saneamendua eta hondakinak) ehunekoa	Jarduera
18	% 14,1	Produktu metalikoen fabrikazioa
18	% 14,1	Altzarien fabrikazioa
16	% 12,5	Arte grafikoak
12	% 9,4	Edarien fabrikazioa
11	% 8,6	Elikagaien industria
9	% 7,0	Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
9	% 7,0	Manufakturako beste industria batzuk
8	% 6,3	Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa
7	% 5,5	Ehunen industria eta janzkiak egitea
7	% 5,5	Egurraren industria
7	% 5,5	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa
6	% 4,7	Energia, ura eta hondakinekin lotutako zerbitzuak

Iturria: Eustat

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA

Industria-establezimenduen kopuruaren bilakaera
(adierazitako urteko urtarilaren 1ean)



Azken 10 urtetan industria sektoreko establezimendu kopuruak behera egin du udalerrian, produktu metalikoen eta altzarien fabrikazioak izan duelarik beherakada nabarmenena.

Arte grafikoaren sektoreak aldiz joera egonkorra mantendu du nahiz eta 2012ko balore maximoetara ez den iristen.

Iturria: Eustat

Establezimendu gehienak 1995ean inauguratutako Abendaño industrialdean daude, zeina erabat urbanizatuta dagoen, eta bertako ia partzela guztiak eraikita daude. Poligono horren ekialdeko ildaskan Errotaberriko industrialdea dago, eta duela gutxi (2018-2022) urbanizazio-obra batzuk egin dira, obra horien ondorioz, poligonoa handitu eta uholde-arriskuari aurre egin zaiolarik.

Abendaño poligonorako eta Errotaberriko sarbide berriak egin dira baita ere (Abendaño eta Frantzeskako zubi berriak), herriguneko mugikortasuna hobetzeko helburuarekin

Zarautzen industria-sektorea bultzatzea erronka handia da. Helburu horrekin, Udalak hitzarmenak egin ditu Sprilur eta Beterri Kostako Industrialdea sozietateekin, ekimen publikoko enpresa-parkea garatzeko. 2022an zehar, Sprilurrek 18 pabiloi berri eraikiko ditu Errotaberriko 10 lursailetan, eta, horri esker, udalerriak bertan dauden industrien kopurua handitzeko azpiegitura izango du.

Honetaz gain, Sprilur eta Beterri Kostako Industrialdea sozietate publikoek Abendaño industrialdea handitzeko Errotazar sektorizatzeko plana egiteko baimena eskatu diote Udalari, izapide hori jendaurreko fasean dagoelarik. Honekin lotura, oraindik Inurritza inguruan dauden industria-enpresei dagokionez, berauek industria-gune berri horietara lekualdatzea aurreikusten da.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA



Iturria: Eusko Jaurlaritz / Gobierno Vasco. geoEuskadi


Gaur egun indarrean dagoen lursail industrialen erabilera arautzen duen ordenantzak ez du baimentzen txikizkako merkataritza-erabilerarik lurzoru industrialean; hare gehiago Ordenantzak berariaz debekatzen ditu, besteak beste, txikizkako merkataritza-jarduerak, eta, orohar, oso murriztailea da erabilera baimendu eta bateragarriei dagokienez.. Honela, Zarautzen ezinezkoa da 1.000 m²-tik gorako azalera duten merkataritza-erabilerak ezartzea, ez industrialetan, ezta bizitegi-guneetan ere.

Industria-sektore edo industria guneetan industriaz gain, beste erabilera batzuk ezartzeko eskaera dagoenez, egungo ordenantzaren aldaketa tramitatzen ari da Udala.

Berrikuntza eta zaintza teknologikoa

Zarauzko berrikuntzaren egoerari dagokionez, ez dago udal mailako daturik, baina eskualde mailako datuak oinarri hartuz. 2020an, Urola Kostako I+Gko eskualdeko barne-gastua BPGren % 1,42 izan zen, Euskadiko batez bestekoaren eta Gipuzkoako beste eskualde batzuen azpitik dagoelarik.

I+Gn lan egiten duen eskualde bakoitzeko pertsona-kopuruari dagokionez, EAEn I+Gn aritzen diren pertsonen % 100etik Urola Kostak % 2,4ko ekarpena egiten duela ikusten da.



Iturria: Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Eskualdean, Urola Kostako Udal Elkartearen funtsezko eginkizunetako bat da eskualdeko enpresen lehiakortasuna eta modernizazioa hobetzea, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza teknikoaren bidez; izan ere, lehiakortasuna eta modernizazioa hobetzea da eta, enpleguari eutsi eta lanpostuak sortzeko bidea.

3 ardatzetan oinarritzen da Urola Kostak egiten duen lana:

- Enpresen sorrera eta iraunkortasuna bultzatu eta gerora, hauen lehiakortasuna bultzatu.
- Eskualdeko sare publiko pribatu sendo eta eraginkorra sustatu. Sarea bai eskualde mailan (bertako eragile, enpresa eta herritarren partehartzeaz bultzatu eta indartuz), baina baita garapen sozioekonomikoaren arloko eskualdez gaindiko eragile eta erakundeekin ere.
- Pertsonen garapena, partaidetza eta inplikazioa areagotu, tokiko garapeneko agente dinamiko gisa.

Urola Kostako Udal Elkarteak, 2020.urtean enpresetako Berrikuntza eta Zaintza Teknologikoari buruzko azterlana egin ondoren, eskualdeko negozioetan kudeaketa sistema aurreratuak ezartzeko aukerak eskaintzen hasi ziren; batez ere, eskualdeko enpresek eta ekintzaileek lehiakortasunerantz bide egin dezaten zaintza teknologikoaren eta adimen lehiakorraren alorrean eragiteko.

Horretarako, KUDEAKETA+ izeneko programa garatuko da 2022.urtean zehar. Enpresek eta ekintzaileek kudeaketa profesionalizatzeko bidean eskainitako programa bat da. Ekimena abenduan zehar egingo diren informazio jardunaldirekin abiatuko da, zeinetan kalitatea eta ingurumen eta prebentziorako kudeaketa-sistemak, hizkuntza-kudeaketa, berrikuntza eta berdintasuna eta aniztasuna landuko diren eta ondoren, banakako aholkularitza egokitua eskainiko zaie.

Turismoarekin lotutako berrikuntza

Zarauzko turismo departamentutik enpresa turistikoen lehiakortasuna landu eta sustatu da urtetan zehar. Honen harira, 2005 urtean Zarautzek **kalitate turistikoaren Q ziurtagiria** atera zuen EAEko lehen udalerrietakoa izan zen. Turismo bulegoa eredu izanik, enpresa turistikoen lehiakortasuna hobetzea izan zen honen helburu nagusietako bat.

Hurrengo pausu gisa, Zarautz aitzindari izan zen baita ere **SICTED** proiektua sustatuz udaletik, helburu turistikoen kalitatea hobetzeko proiektu gisa. Proiektu honetan turismoarekin erlazio zuten enpresa talde batek parte hartu zuen, ondoren proiektua eskualde mailara hedatu zelarik. Aipatzekoa da eskualdean garatu zen prozesuak "SICTED destino onenaren" saria edo errekonozimendua lortu zuela. Proiektu honetan turismoa oinarri duten izaera desberdinetako enpresek parte hartu zuten: alojamenduak, jatetxeak, tabernak, surf eskolak, txakolindegia eta gida turistikoak ere.

Bide horretan, Zarauzko Turismo bulegoak Euskadiko Turismoaren **Kode Etikoaren** ziurtagiria lortu du, zeinaren helburu nagusia den eragile turistikoek erantzukizuna eta jasangarritasuna beren eguneroko jardueran integratu dezaten lortzea den.

Orain arte egindako ibilbide honek enpresa turistiko hauek Biosphere jasangarritasun ziurtagiria lortzeko aukera errazten die.

Industria-establezimenduen ingurumen kudeaketa

Industria-sektorearen ingurumen-inpaktuari dagokionez, **ingurumen inpaktu handiena** duten instalakuntzak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol bateratuari buruzko (IPPC) 16/2002 (eta ondorengo aldaketak) Legearen eraginpean daudenak dira. Zarautzen **Urtetako zaborteja** da establezimendu bakarra, zeina dagokion Ingurumen Baimen Bateratua eta Jarduera-Lizentzia dituen. Nahiz eta itxita egon, oraindik jarraipena egin behar zaio, sor litzakeen inguruen inpaktuak kontrolatzeko.

Udalerrian kokatuak dauden gainontzeko aktibitateei dagokionez, kasu puntualak ezean, hala nola gasolindegia eta erregaien hornikuntza (gaur egin udalerrian 2 gasolindegi daude), ingurumen inpaktu baxuagoa dutela kontsideratzen da, bai aktibitate motagatik, baita aktibitatearen beraren tamainagatik ere. Hauek ondoren zehazten diren aktibitate motak dira: mekanizazioa tailerrak, aroztegi metalikoak, inprentak,...

Guzti hauek Sailkatutako Jarduera Klasifikatuen-Lizentziaren edo Aldez Aurreko Jakinarazpen prozeduren bidez kontrolatzen dira.

Oraindik industria sektoreko enpresa guztiek ez dituzte legeztatzeko beharrezkoak diren tramite guztiak bukatu. 2014. Urtean Abendañoako Poligonoan proiektu bat egin zen, bertako enpresa guztiak legeztatzeko, baina ez zen guztiz burutu.

Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularren helburua baliabide material eta energetikoak ahalik eta gehien aprobetxatzea da, ekonomian ahalik eta denbora gehien iraun dezaten, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murriztuz. Horrek esan nahi du nahitaez aldatu behar dela ekoizteko ereduak, eta, azken finean, herritarren jarrera, ohiturak eta jokabidea.

Udaletik orain arte ez da ekonomia zirkularrekin lotutako ekintzarik egin udalerriko industrien esparruan.

Ekonomia zirkularreko prozesuak hasi dituzten ekimen pribatu batzuk daudela nabarmendu behar da, lehengai gisa material birziklatuak erabiltzen dituztenak beren produktuak fabrikatzeko.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Industrialdeetan egindako azpiegitura** berriak: Errotaberriko poligonoa zabaltzea eta Abendaño eta Frantzeskako zubi berriak egitea.
- Urola Kosta Udal Elkarteak eskualdeko enpresei eta ekintzaileei egiten dituen azterlanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak:
 - **Zerbitzu trinkoak:** Sentsibilizazio ekimenak, aholkularitza, informazioa, prestakuntza, enpresa gida, merkatu eta etorkizuneko erronken txostenak, dirulaguntza programa, eta abar.
 - **Programa zehatzak:** Urola Kosta sortzailea, Ondorengotzaren kudeaketa, Mikropreben, Hazilan enpresak, Hazinnova, Mugi Urola Kosta Enpresa euskaraz handitzen, 4.0 industria eta ETE digitala, Ostiral teknologikoak, Zibersegurtasuna eta Aniztasunaren kudeaketa
- Kalitate turistikoaren “Q ziurtagiria” lortzea eta “SICTED proiektua” garatzen aitzindaria izan da Zarautz, **turismo enpresetan berrikuntza eta kalitatea sustatzea** helburu izan dutenak.



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Herria ekonomikoki dibertsoa da, denetarik pixka bat dago (industria handirik ez, baina bai komertzio txiki asko, turismoa...), eta ekonomia beheraldietatik erraz ateratzen da aurrera, horrek kalitatezko posibilitateak ematen dituelarik.
- Desindustrializazioa eman da, 80.hamarkadan enpresa asko bazeuden ere, gaur egun industria gutxi dago udalerrian. Zarautzko enpresa batzuk alde egin dut, beste herri batzuetara joanez. Industria garapena txikia da, eta gero eta txikiagoa.. Honen aurrean industria garatzeko eta erakartzeko zerbaitekin egin beharra aipatu da..
- Lan sorkuntza edo ekintzaitzeta aurrera eramateko Udalek dituen tramiteak zailak direla komentatu da (arautegia, epeak,...)
- Aurreko mendeko 70. hamarkadatik hazkuntza jasangarritasunarekin bateragarria ez dela badakigu eta beraz, ekonomia birpentsatzea beharrezkoa izango dela uste da.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Pertsonetikiko eta ingurumenarekiko errespetu handiagoa duen industria-eredu bat eraikitzen laguntzea, ekonomia zirkularrarekin lerrokatutako azpiegiturekin eta teknologiek, materialen eta produktuen balioa zainduko duena.

Urola Kostako Udal Elkarteak, hurrengo urteetan, merkatuak izango dituen joerak aztertu ditu eta begirada etorkizun hurbileko merkatuan jartzen du etengabe. Horren baitan, landuko diren ekimenek ondorengo lan ildo estrategikoak aintzat hartuko dituzte:

- *Eraldaketa digitala:* digitalizazioa edo eraldaketa digitala, negozioen kudeaketa errotik aldatzen ari da, lehiakortasuna hobetzeko aukera berriak sortuz eta aldaketa kudeatzeko eta balio erantsi berria sortzeko gaitasun handiagoa eskainiz. Honen harira, ondorengoak

sustatu edo landu beharko dira: Automatizazioa, telelana, e-merkataritza, industria 4.0, zibersegurtasuna...

- *Eraldaketa demografikoa*: Balio erantsiko irtenbide partekatutak sustatzea trantsizio demografikoaren erronka sozial eta ekonomikoari aurre egiteko; pertsonen zahartze-prozesua kontuan hartzen dutenak; inpaktu soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa integratzen dituztenak gizartearen ongizatea, autonomia, berdintasuna eta aniztasuna areagotzeko.
- *Eraldaketa klimatikoa*: Garapen jasangarriko eredu ekonomiko eta sozial batera aldatzea, helburu nagusizat hartuta klima aldaketaren aurka borrokatzea eta haren ondorioak arintzea. Esaterako, eraldaketa energetikoa eta karbono gutxiko energia-eredu baten alde egitea, mugikortasun jasangarria eta isurpenik gabeko garraio baterantz aurrera egitea, elikagai ekologikoak eta lehen sektorearen emisioak murriztea, ekonomia zirkularra, besteak beste.
- *Urola Kostako eskualdeko baliabide endogenoak aprobetxatzea*: Eskualdeko tokiko izaera eta baliabide endogenoak bultzatzeko gai diren proiektu edo egitasmoak. Besteak beste honakoak:
 - **Ekonomia urdina**, itsasoarekin lotura duten jarduera ekonomikoak kontuan hartzen dituena, itsas baliabideen erabilera jasangarria eginez. Esaterako, energia urdina, akuikultura, itsasoko, kostaldeko turismoa, itsasoko baliabide mineralak eta bioteknologia urdina.
 - **Sektore tradizionalen eraldaketa**, ekonomiaren garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jarduera batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.
 - **Turismo jasangarria**: Turismo jasangarriko ereduak honakoak ezinbesteko izango ditu, elkarrekin erlazionatuak, bisitatzen gaituzten pertsonen esperientzia hobetzeko eta gizartearen zati batek turismoari buruz duen pertzepzioa hobetzeko: iraunkortasun ekonomikoa, tokiko komunitatea, ingurune naturala eta kulturala, eta bisitariak. Helmuga espezializatu bat, ondo egiten dakien gauzetara bideratua dagoena eta gainerako helmugetatik bereizten duena.